



**SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, SA SOZIETATEAREN  
WEBGUNEAN DONOSTIA HELBURU TURISTIKOAN OSTATU PLAZAK  
ERRESERBATZEKO ONLINE SISTEMA BAT (ERRESERBA MOTORRA)  
OSTATATZEKO ESPAZIOAK LAGATZEA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA**

**ESLEIPEN EBAZPENA**

2015eko abenduaren 4an kontratatzailearen profileen argitaratu zen San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, SA sozietatearen webgunean Donostia helburu turistikoa ostatu plazak erreserbatzeko online sistema bat (erreserba motorra) ostatatzeko espazioak lagatzea kontratatzeko lizitazioaren iragarkia.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, 2015eko abenduaren 24an, 3 enpresa izan ziren proposamenak aurkeztu zituztenak, hau da, Hotelbeds, SLU, Booking.com, BV eta Equinoccio Viajes, SA.

Teknikariek Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Agiriaren 14. klausulan ezarritako balorazio irizpideen arabera aztertu eta baloratu dituzte aurkeztutako eskaintzak, eta, eginkizun horretan, gehienez ere 70 puntu eman dizkiote "Proposamen teknikoari" eta 30 puntu "Proposamen ekonomikoari".

Horiek horrela, honako puntuazio hau izan da teknikariek egindako balorazioaren emaitza:

Lizitatzailerak	Proposamen teknikoa 70 puntu	Proposamen ekonomikoa 30 puntu	Guztizko puntuazioa
1. Hotelbeds, SLU	50	30	80
2. Booking.com, BV	68	21,8	89,8
3. Equinoccio Viajes, SA	40	15	55

Otsailaren 12an, lizitazio honetako teknikariek Booking.com, BV enpresak aurkeztutako proposamenari iritzi diote oro har eskaintza ekonomikoki onurazkoena, alderdi hauetan oinarrituta:



- Kontratatzen eta erabiltzailearen arteko harremanari buruzkoak: erreserba motorra edozein gailutan (gailu mugikorrek barne) bistartzeko optimizazioa, zenbat hizkuntzatan erabil daitezkeen eta tresnaren erabilerratasuna eta informazioa, bezeroentzako arreta zerbitzuaren ezaugarriak eta arretarako hizkuntzak.
- Kontratatzen eta Donostia Turismoaren arteko harremanari buruzkoak: ezarpen fasearen deskribapen zehatza eta horren iraupena erabiltzeko prest egon arte. Widgetekin eta interfazeekin integratzeko aukera aurreratuak. Google Analytics tresnarekiko integrazioaren deskribapen zehatza, egindako bihurteten jarraipena barne dela. Widget, WebServices, AP, Jhson, XML eta abar bezalako hirugarrenekin integratzeko sistema teknikoari buruzko zehaztasun handiko dokumentazioa.
- Kontratatzen eta ostatatze zerbitzuen hornitzaileen arteko harremanari buruzkoak: produktuak eguneratzeko metodologia eta mekanismoak zehaztasun handiagorekin deskribatuta. Merkaturatzeko sistema eta talde osatuena.

Hori guztia dela eta, teknikariek proposatu dute San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, SA sozietatearen webgunean Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko online sistema bat (erreserba motorra) ostatatzeko espazioen lagapenaren kontratazioa enpresa horri esleitzea, errekerimenduan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Otsailaren 24an, Kontratazio Organoak Booking enpresari eskatu dio Teknikariek Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Agiriaren 17. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezteko, eta epearen barruan aurkeztu du.

Horiek horrela, Kontratazio Organoak honako hau

## **EBATZI DU**

**Lehen.** - San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, SA sozietatearen webgunean Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko online sistema bat (erreserba motorra) ostatatzeko espazioen lagapenaren kontratazioa Booking.com, BV enpresari esleitzea, guztizko komisioren gaineko % 50ean (% 16ko batez besteko komisiorekin), formalizatzen den egunetik hasi eta bi urteko eperako. Kontratazio Organoak urtero luza dezake epea, gehienez ere beste bi urte bete arte.

**Bigarrena.** - Ebazpen hau kontratatzailearen profilean argitara dadin agintzea eta lizitatzailerik guztiei jakinaraztea.



**Hirugarrena.** - Kontratua formalizatzea, lizitatzailleek ebazpen honen jakinarazpena hartzen dutenetik hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan.

Donostian, 2016ko martxoaren 29an

---

Kontratazio Organoa  
Eneko Goia

